



DEIALDIA, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA EUSKARA ITZULTZAILE ARITZEKO 4 PLAZA OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko urtarrilaren 12an, deialdiaren oinarriak aldatzea onetsi zuen, honen arabera:

1. Euskara itzultzaile aritzeko 2 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiaren 1.2) oinarria aldatzea, eta beste bi plaza sartzea. Horiek onetsi ziren 2025.urterako lan eskaintza publikoan, 2025eko 258. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 30ekoan, argitaratua.
2. Plazak Hezkuntzako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorrari atxikita daude, eta plantilla organikoan 1-100600-2 eta 1-100600-8 zenbakiekin identifikatzen dira. Plaza horiek gehitzen dira Iruñeko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko irailaren 18an onetsitako deialdian – 2025eko 197. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urriaren 2koan, argitaratua— jada onetsi zirenei, eta honako txanda hauetan banatuko dira:

-2 plaza txanda irekian.

-2 plaza igoera-txandan.

Deialdiaren xede diren plazek euskararen ezagutza eskatzen dute, C1, EGA edo horietako baten baliokidea.

2. Eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzea, hogeit egun naturalekoa, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, deialdiaren 2.oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituztenendako.

Horretarako gaitutako hasierako epean eskabidea aurkeztu zutenek ez dute berriro eskaerarik aurkeztu beharko.

3. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu dadila agintzea.

Deialdi honen, haren oinarrien eta horiek aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsio hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.



c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026eko urtarrilaren 12an – Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza